

Diru sarrerak

Gure diru sarrerak produktuaren salmentatik etorriko dira, hasiera batean enpresak dituen gastuak estaltzeko ainakoak izango dira eta denboraren poderioz irabaziak edukitzeko aukera izango dugu hirurok.

Hasteko, hasierako inbertsioa lehen hilabeteko kostuak finantzatzeko ainakoa izango da, hala ere, soldatak baztertuko ditugu lehen hilabetean soldata kobratzeak ez lukeelako zentzurik eudkiko Ondorioz, hasierako inbertsioak UGGASaren lehen kuota (30€), lehen makina (1500€) web gunearen sortkuntza prezioa (45€), amazonen produktua esleitzea(40€), lehen 7 goma packak (175€), pintura eskaria (30€) eta pintzelak (5€) finantzatu beharko ditu. Honen ondorioz 1825€ ko lehen inbertsio bat beharko genuke eta bakoitzak 609€ aportatu beharko ditu.

Bestalde, gure aurreikuspenaren arabera hilabetean 1050 unitate salduko ditugu, 5€ko salmenta prezioan. Ondorioz, hilabete bukaeran 5200€ko diru sarrerak edukiko ditugula espero dugu eta honek urte osoko sarreren balantza 62.500€an utziko du, lehen hilabeteko salmentek bigarren hilabeteko kostuak estaliko dituzte. Errenta ekonomikoari dagokionez, urteko diru sarrera totalei urteko gastu totalak kendu beharko dizkiegu honek, irabazi ekonomiko totalak 14.395€koak izazngo dira eta irabazi hauek bi banaketa izango ditu. Lehena, aske gelditzen den diruaren %50a gure hartean banatuko dugu eta beste erdia enpresaren kontu korrontean sartuko dugu, kapital moduan erabiltzeko edo bat-batekorenbat gertatzen denerako.